

1975 URTEKO BATZAR EGUTEGIA

1973 urtean egin genuen lehenengoz batzar egutegi bat. Ospakizun bi egin genituen Gipuzkoan, bata Elgoibarren Urruzunoren omenez eta bigarrena Arrasaten, bertako Udalak, Ayuntamentuak deiturik; Bizkaian beste bat, Lekeition, Eusebio M^a de Azkueren mendeurrean eta Araban beste bat, Juan Bautista Gamizen bigarren mendeurrean. Gainera Euskal Unibertsitatearen aukerarekin baliaturik Donibane Lohizunen, Unibertsitatean bertan egin genuen beste batzar bat.

Igaz, barka, aurten, bukatzen dugun arte honetaz ez dugu izan mendeurrenik, baina gorasarre bi programatu ziren, bata, Ekainean, Erriojako San Millan de la Cogolla-n, Instituto de Estudios Riojanos-ekin batera. Benetan egun atsegina, lehendabizi Euskal Herriko erakunde batek irteera bat euskal herrialde ohi haretara eginaz. Gero irailean Urdazubin batzar irekiak, aspaldiko hiru euskaltzainek, Erkiagak, Irigoyenek eta san Martinek, beren protokolozko sarrera hitzaldia egiteko balio izan dute. Gero

aurtengo Apiril-ean Arantzazun egin zen batzarra, herri eta herritarren izen-
degiko batzordearen bilkuren ondoren. Azkenik, gaurko bilkura hau bilbon,
Euskaltzaindiaren Etxean egitea programatu genuen, baina datorren hilera-
ko uzten dugu, zeren Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País
delakoak, beren Etxe honetara gomitatu gaituenez gero bidezko zen anai
dei hori pozik onartzea.

Eta goazen datorren urteko batzar agutegira. Hiru mendeurren ditugu,
nik aurkitu ditudenatik behintzat. 1775ko abuztuaren 17an jaio zen Oken-
don, Araban, Jose Paulo Ullibarri, garai haretako euskaltzalerik interesga-
rrienetarikoa, bidezko zaio, gorasarre bat egitea, bidez batez, euskara gal-
du duten eskualdeetara ostera bat egiteak ere bere kultur eta sinbolu ba-
lio baitu. 1875ko Irailean, Donibane Garazin jaio zen beste euskal idazle
bat Jean Barbier, bere omenez batzar bat egitea, gainera ez dakit Doni-
bane Garazi ez den euskal hiriburu bakarra behin ere batzarrik Euskaltzain-
diak egin ez duenetarikoa. Baita ere batzar honekin baliatuko da seguru as-
ko Emil Larre euskaltzain baxenafarra, bere sarrera hitzaldia egiteko, bere
herrialdearen hiriburuan. Azkenik, 1875ko Azaroaren 28an Euskaltzaindia-
ren hasierako euskaltzain bat jaio zen Lemoan, Juan Eguzkitza. Beragatik
ere aipamen bat egin beharra du Euskaltzaindiak, batzar akademiko bat
eratuaz. Bestalde 284 dira, Euskaltzaindiaren irakasle titulua beheko maila-
koa irabazi dutenak, hiru urtetan. Harrera hain onak, gure esker onaz gai-
nera, zerbait gehiago eskatzen du noski, eta hau da berentzat jardunaldi
batzuk antolatzea ahal bada Oinatiko Unibertsitatean edo bestela Arantza-
zun. Zertarako ordea: elkarren esperientzien berri jakiteko azken aurrera-
penak hizkuntza irakaskintza arloan aztertzeke: metodu audiobisual eta
abar; elkarren arteko lokarriak Euskaltzaindiaren bidez sendotzeko eta az-
ken baten erdiko mailako titulua, B mailakoa eskuratzeko, hantxe bertan
etsamina batzuk eginaz. Honetarako garairik egokiena Bazko Astean, Aste
Saindu osteko astea izango dela pentsatu dugu, Martxoaren 31tik, Apiri-
laren 5era bitartekoa. Azken egunean klausura bezala Euskaltzaindiak, jar-
dunaldiak egiten diren leku berberean batzarra eginaz.

Herriari eta euskal kultur munduari begira ere egin beharrak ditugun
batzar hauetatik landa, baita ere azalduko dugu barneko batzarren egute-
gia, ere, Urtarrilekoa izan ezik, ohi den bezala Donostian egingo direnena.

Beraz, 1975 urteko batzar egutegia honela geldituko litzateke:

Urtarrilaren 31n, azken ostiralean, Bilbon, Euskaltzaindiaren Etxean.

1975 URTEKO BATZAR EGUTEGIA

Otsailaren 28an, azken ostiralean, Donostian, Diputazioan.

Martxoaren 31tik, Apirilaren 5era bitartean, Oinati edo Arantzazun.

Apirilaren 25ean, azken ostiralean, Donostian, Diputazioan.

Maiatzaren 30ean, azken ostiralean, Donostian, Diputazioan.

Ekainaren 27an, azken asteazkenean, Donostian, Diputazioan.

Uztailaren 30ean, azken asteazkenean, Donostian, Diputazioan.

Abuztuaren 17an, hirugarren igandez, Okendon, Ullibarriren gorasarrez.

Irailaren ?, Donibane Garazin, Jean Barbier-en gorasarrez.

Urriaren 31n, azken ostiralean, Donostian, Diputazioan.

Azaroaren 28an, azken ostiralean, Bilbon edo Lemoan, Eguzkitzaren gorasarrez.

Abenduaren 26an, azken ostiralean, Donostian, Diputazioan.

Azkoitian, 1974 Abenduaren 27n.
Jose Luis Lizundia, idazkari-ordeak

1979. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BATZAR EGUTEGIA

Datorren urteko batzar egutegia egikeran, azken urteotan egin duddan bezalaxe, kontuan izan ditut gure euskaltzain edo euskal idazle ospatsuen mendeurrenak. Horretarako Villasante eta Onaindiaren liburuetan oinarritu naiz, eta baita ere "EUSKERA" gure aldizkarian.

Euskalari ospatsu biren mendeurrenak ditugu helduden urtean, GEORGES LACOMBE bata eta SEBER ALTUBE bestea. Euskaltzaindiaren sortze sortzetik ez baziren euskaltzain izendatu ere, bai lehen hutsuneak betetzeko. Elkargoan martxan jarrita, urte betera, 1920an, beraz, aski goiz.

Lacombe Orthezen jaio zen 1879ko urtarrilaren 3ln. Aita, Agenais, kaskoin herrialdekoa zen, eta Estatu funtzionaria, eta toki maiz aldatzen zelako, Biarnon jaiotzea tokatu zitzaion Georges haurrari. Ama amikuztarra izanik, euskararen mundutik ez zen urrun egongo. Guri ez zaigu tokatzen Lacomberen euskaltzaletasuna eta euskal lanen berri ematea.

Horren berri badago liburu eta aldizkarietan, eta gehiago galdetzekotan, jo Piarres Lafitte euskaltzain eta lankide-rengana, berak, Lacomberi buruz egin bai zuen Euskaltzaindian sartzeko egunean bere sarrera hitzaldia (ikus, *Euskera*, 1953, I, 36 orr.). Laster dugu, beraz, amikuztar jatorrizko jaun honen mendeurrena, datorren hilaren ondarrean.

Iparraldeko euskaltzaleak zenbait gertakizun programatzekoak dira: euskararen aldeko kanpaina bat, Euskaltzaindiaren nortasun ofiziala lortzea, Baionan gure Ordezkaritza tinko bat muntatzea, "Charte Culturelle" delakoa burutzea eta abar. Guzti horren hasiera emateko, Georges

Lacomberen mendeurrena izango da seinale eta egutegi irekitze, Euskaltzaindia bera Baionan bilduaz hila bete barru, Urtarrilean.

Seber Altube dugu bigarren ospakizun nagusi. Leinzarra zen, eta prezizkiako, Arrasaten jaio zen 1879ko Azaroaren 8an, bertako XVI Bataio Liburuak, 262. orrialdeak dioskunez.

Ez dut uste, nik eta hemen, bere bizitza eta lanei buruz zertan ihardun behar dudarik. Zeren inor izan bada Azkuerekin batera, Euskaltzaindian eta euskararen munduan, jaun eta nagusi Seber Altube izan da. Batez ere gerra aurreko *EUSKERA*n aurki dezake edonork bere lanen berri, Villasante eta beste askok egin dizkio aipamen ugari, eta zehatzago bere bibliografia bilatzeko jo beza nahi duenak, Jose Antonio Arana Martija gernikarrak, Arrasateko Udaletxean irakurritako zerrenda osora, *EUSKERA*, 1974, 262-266 orrialdeetan agertzen denera.

Gure hizkuntzak, eta bere Akademiak hainbeste sor dion gizon honek, merezi du handikiro ospatzea. Horretarako, datorren Abenduan, bere jaioterrian aspaldiko "santotomasetako" feria festa famatuetan, Euskaltzaindiak bere IX. Biltzarra egingo du, gramatika, Altubek hainbeste maite zuen lan gaia, gai nagusia izanik.

Bestalde, ez da aiantzi behar, 21 urtekin Gernikara joan zela bizitzera, hango alaba batekin ezkondu zela, bertako alkate ere izan zela, eta han hil zela 1963ko Abuztuaren 27an. Hamabost urte beteko dira, beraz, egun horretan, eta Euskaltzaindiak bere aurtengo Uztailleko batzarrean, munduan zehar euskarari buruz lanean diharduen jakintsu eta euskaltzaleen Biltzar bat antolatzeko erabaki bat hartu zuen. Euskal Herria nazio bezala ezerk adieraten badu, beste edozerk baino hobeto, hizkuntzak da, eta munduan zehar sinbolu hiri ezagun bat badu, Gernika da hain zuzen, Altuberen bigarren herria. Biltzar bat antolatzeko, Nazioarteko Kongresu gisako bat, ez dago denbora gehiegirik, hemendik udara, baina bai behar bada, horren prelude gisako Lehen Topaketa batzuk, zeinetan euskalari arrotzak, fisikoki elkar ezagutza bat izateko aukera izan dezaten, bestelako harremanak ugaritu, eta nolabait instituzionalizatu, eta hemendik urte ba-

tzuetara egin daiteken eta oso beharrezko den Nazioarteko Biltzar handi horren zimendarriak jarri. Abuztuaren 27a, astelehena denez, gainera, egun seinalatua beti Gernikan, izan daiteke Topaketa hoiekin lehen urrats apal bat hasteko egun aproposa, azken ostiralean, 3ln, Euskaltzaindiaren hileroko batzarrearekin amaitzeko.

Hirugarren ospakizun bat ere programatzen dugu datorren urterako, Maiatzerako kalkulatuaz, eta hau da Iruñeko Euskaltzaindiaren Ordezkaritza ofiziala, Nafarroako Diputazioaren "Cámara de Comptos" delakoan irekitzea.

Ez da bestalde, inaugurazio huts bat izango. Alde bate-tik, "Euskararen Lekukoen" Euskaltzaindiaren lan sortako, lehen alea kaleratuko baita egun horretan, Apezetxea jaunak Elkanoko Leizarragaren lanetaz prestatzen ari dena.

Bestalde, apal edo handi, lau euskaltzale nafarren mendeurrena betetzen da helduden urtean, Juan Etxamendi "Bordel", Luzaiden munduratu zena, eta orain ehun urte, 1879an, Maiatzaren 30ean, bere jaioterrian hila. Bordelen bertsu eta lanen berri ongi inork ematekotan, José Mari Satrustegi euskaltzain eta idazkari berriak eman dezake, berak aztertu eta idatzi baitu zehatz eta mehatz euskaltzale luzaidarrak.

Bigarrena, Prudenzi Hualde Maio dugu, Bidankozen jaioa, eta 1879ko Abenduaren 9an, bere jaioterrian, hau ere, hila. Julio Urkijok, Azkuek, Nikolas Alzolak eta beste batzuk aztertu dituzte erronkariar honen euskal lanak, batez ere Bonaparte Printzearen erreguz Erronkariko euskara berezira itzuli zituen Ebanjelio eta dotrinak.

Hirugarrena, Zelestiko Peralta dugu, Aita Arrigarai izenarekin ezagunagoa euskal munduan, hasieratik beretik euskaltzain laguntzailea, denok dakizuen bezala, gramatika eta aditz lanetan nabarmendu zen Erriberako euskaldun berri hau. Datorren urtean betetzen dira, ehun urte jaio zela. Merez du, zen eskualdetakoa izanik, eta baita gure artekoa ere, gure aipamena.

Azkenik, laugarrena, Aita Arrigarai bezala kaputxino ordenakoa hainbeste nafar euskaltzale ospetsu gerra aurretik eman zuen ordenakoa, hain zuzen, José Iturria dugu, Lezon bizia, baina Bortzirietako Arantza hirixkan, 1879ko Ekaina-

EUSKALTZAINDIAREN 2005EKO BATZAR-EGUTEGIA

Donostia, 2005-I-12

Pello Telleria, idazkariordea

Urtarrilaren 12an, Donostian, Euskaltzaindiaren ordezkartizan, 2005eko batzar-egutegia aurkeztu zuen Erakundeak komunikabideen aurrean. Hauek dira, Euskaltzaindiak 2004ko abenduaren 17ko osoko batzarrean onartu zuen egutegiaren arabera, 2005. urtean zehar Akademiak gauzatzea begiz jotako ekitaldi ezberdinak:

Hila	Eguna	Tokia	Zer
Urtarrila	27 28	Egoitza	Kargu aldaketa Batzar arrunta
Otsaila	25	Donostia	Batzar arrunta
Martxoa	18	Egoitza	Batzar arrunta
Apirila	22	Donostia	Batzar arrunta
Maiatza	26 27 28	Argomaiz Ozeta Larrea	– Batzar arrunta – XIV. Barne-Jardunaldiak – Joan Perez Lazarragaren heriotzaren IV. Mendeurrena
Ekaina	23 24	Bilbo	– Batzar arrunta – Adolfo Arejitaren sarrera-hitzaldia
Uztaila	21 22	Iribarri	– Jean-Pierre Arbelbideren eta Francisco Laphitz-en heriotzen mendeurrena – Batzar arrunta
Iraila	23	Altsasu	– Batzar arrunta – <i>Nafarroa Oinez</i> : J. M. Satrustegiri omenaldia – Juan Goikoetxearen jaiotzaren mendeurrena

Hila	Eguna	Tokia	Zer
Urria	21	Mungia- -Laukiz	– Batzar arrunta – Esteban Urkiaga «Lauaxeta»ren jaiotzaren mendeurrena
Azaroa	24, 25	Donostia	– Batzar arrunta – VIII. Herri-Literatura Jardunaldiak
Abendua	16	Egoitza	- Batzar arrunta – IX. <i>Jagon</i> Jardunaldiak

Euskaltzaindiaren XIV. Barne Jardunaldiak

Maiatzaren 27 eta 28an egitea aurreikusita daude Jardunaldi hauek Araban. Euskaltzaindiak bi urtez behin egiten ditu Barne-Jardunaldiak, eta beste-ren artean, hurrengo bi urteetarako batzordekideak izendatzen ditu. Beraz, aurren, 2005 eta 2006. urteetarako batzordekideak izendatuko dira.

Joan Perez Lazarragaren heriotzaren IV. Mendeurrena (1550-1605)

Maiatzaren 28an egingo da mendeurren honen ospakizuna Araban, Barundiako Larrean. 2004an ezagutzera eman zuen Gipuzkoako Diputazioak aurkitu berri zuen Joan Perez Lazarragaren eskuizkribua. Eskuizkribua plegu laurdenean egina dago. 51 orriz (102 orrialdez) osatua. Lehenengo 4ak ez dau-
de osorik, urratuak izan dira. Esku bakarreko zirriborroa edo lanerako alea dela esan daiteke. Joan Perez Lazarragak, Larrea Dorretzeko Jaunak euskaraz idat-
zitako bertso, kanta eta maitasun-kontuen bilduma da. Horiez gain, garai har-
tan gogoko zuten kontakizun mitologiko luze bat dago.

Adolfo Arejita euskaltzainaren sarrera-hitzaldia

Ekainaren 24an ageriko batzarra egingo du Euskaltzaindiak, Adolfo Are-
jita euskaltzain oso izendatu berriak sarrera ofiziala egin dezan, sarrera-hi-
tzaldia irakurriz. Euskaltzain oso, 2004ko ekainaren 25eko batzarrean izenda-
tua izan zen, martxoan hil zen Andolin Eguzkitzaren hutsarte betetzeko.

Jean-Pierre Arbelbide (1841-1905) eta Francisco Laphitzen (1832-1905) mendeurrenak

Uztailaren 21ean omenaldia egingo die Euskaltzaindiak Nafarroa Behe-
reko bi idazle hauei:

Jean-Pierre Arbelbide (1841-1905)

Zaron jaio zen 1841eko abenduaren 22an, eta Baionan hil, 1905eko urtarriaren 27an. Eliz gizona izan zen eta hauek dira euskaraz argitaratu zituen lan nagusiak:

- *Bokazione edo Jainkoaren deia*, 404 orrialdeko liburua, 1887an, Lillen argitaratua.
- *Erlisioena: Eskual-herriari dohazkon egiarik beharrenak*, 480 orrialdeko liburua, 1890ean, Lillen argitaratua.
- *Kalbarioa*, 1892an, Lillen argitaratua.
- *Igandea eta Jaunaren eguna*, 226 orrialdeko liburua, Lillen argitaratua.

Libururik ezagunena *Erlisioena: Eskual-herriari dohazkon egiarik beharrenak* da, hain zuzen iaz Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak berrargitaratua.

Francisco Laphitz Arriada (1832-1905)

Arizkunen jaio zen eta Argentinan, Platan, hil.

Gurasoen merkataritza-lanagatik eta ama hangoa zelako Arizkunen jaio bazen ere, Nafarroa Behereko Irisarrin bizi izan zen. Ikasketak Hazparneko ikastetxean egin zituen, eta ondoren, Uztaritzeko seminario txikian sartu zen, eta gero Baionara joan. Apaiztu ondoren, 1857an, Baigorriara igorri zuten apaiz laguntzaile bezala, eta 1866an Zuberoako Altzaira. Berehala, bere herritarra zen San Mixel Garikoitzek sortu berri zuen betarramiten ordena erlijiosoan sartu zen, eta misiolari moduan joan Hego Ameriketara, Paraguai eta Argentinara, eta han hil zen.

Hau da idatzi zuen liburu garrantzitsuena: *Bi saindu hescualdunen bizia, San Inazio Loiolacoarena eta San Francisco Zabierecoarena*, Baionan, 1867an argitaratua. Luis Villasanteren ustez, euskaraz idatzi den libururik ederrenetakoa da.

Nafarroa Oinez-05

Aurten Altsasun egingo da *Nafarroa Oinez*, Nafarroako Ikastolen Elkar-teak urtero antolatzen duen jaia. Euskaltzaindiak aurten ere han izan nahi du, Nafarroako Ikastolen Elkar-teak gonbidaturik, azken urteotako ohiturari jarraiki (2004an Lizarran, 2003an Irunberrin, 2002an Tuteran eta 2001ean Lodosan).

Euskaltzaindiak irailaren 23an egingo du Altsasun iraileko batzarra eta, *Nafarroa Oinez* dela eta egingo duen ageriko bilkuran, Juan Goikoetxearen

jaiotzaren mendeurrena ospatuko du (1905-1973). Juan Goikoetxea Zabalo euskaltzain urgazlea izan zen eta urte luzetan Arbizuko erretore.

Esteban Urkiaga «Lauaxeta» (1905-1937)

Urriaren 21ean ospatuko du Lauaxetaren mendeurrena Euskaltzaindiak, Mungia eta Laukizko udalekin batera.

Lauaxeta Laukizen jaio zen 1905eko abuztuaren 6an eta umetan familia-rekin Mungiara aldatu zen, eta Durango eta Loiolako Jesuiten ikastetxeetan ikasi zuen. Loiolan klasikoak ikastearekin batera, euskara eta euskal kulturarekiko zaletasun-giroa bizi izan zuen. Euskal Jai eta olerki-saioetan sari asko irabazi zuen. Hizlari trebea izan zen eta herriz herri ibili zen mitin eta jaialdi askotan parte hartuz. Espainiako Gerra Zibilean, 1937an, atxilotu egin zuten eta Gasteizen eduki zuten kartzelan, harik eta 1937ko ekainaren 24an Gasteizko kanposantuan fusilatu zuten arte.

Egunkari eta aldizkari ugaritan idatzitako artikuluez aparte, *Bide barriak* (142 olerki, 1931), *Arrats beran* (40 olerki, 1935) eta *Olerkiak* (1974an argitaratua) olerki-bildumak egin zituen. Berea izan zen garaiko euskal lirika Europako korronteetan txertatzeko ahaleginik zabalena eta lortuena.

VIII. Herri Literatura Jardunaldiak

Azaroaren 24an eta 25ean egingo dira Jardunaldi hauek, Donostian. Herri literaturari buruzko jardunaldiak aldiro-aldiro egiteko ohitura du Euskaltzaindiko Herri Literatura azpibatzerdeak eta, aurren, «herri-prosa» izango da aztergai.

IX. Jagon Jardunaldiak, Bilbon

Abenduaren 16an egingo ditu Euskaltzaindiak jardunaldi horiek, Bilboko Elizbarrutiak euskarari eman dion trataera aztertzeko. Jardunaldi hauek, aurreko hiru urteetako beste hiruen segida izango dira, 2002an Hendaian, Baionako eta Oloroetako elizbarrutietako egoera aztertu baitzen eta, 2003an Irunberin, Iruñea eta Tuterakoak eta, 2004an Gasteizen, Gasteizko elizbarrutikoa.

EUSKALTZAINDIAREN 2006KO BATZAR-EGUTEGIA

Euskaltzaindiak 2005eko abenduaren 16ko osoko batzarrean onartua:

OSOKO BATZARRAK, MENDEURRENAK, JARDUNALDIAK...			
Hila	Eguna	Tokia	Zer
Urtarrila	27	Donostia	– Batzar arrunta – Ageriko batzarra: hilberri-txostenak.
Otsaila	24	Egoitza	– Batzar arrunta
Martxo	31	Gasteiz	– Batzar arrunta – Ordezkaritza berria
Apirila	27	Urnieta	– Batzar arrunta – Plazido Mujikaren jaiotzaren mendeurrena.
Maiatza	26	Elantxobe	– Batzar arrunta – Andima Ibinagabeitiaren mendeurrena eta Imanol Berriatuari omenaldia
Ekaina	30	Zaldibia	– Batzar arrunta – F. Ignacio Lardizabalen jaiotzaren 2. mendeurrena.
Uztaila	21	Antzuola Oñati	– Batzar arrunta – Ana Toledoren sarrera hitzaldia
Iraila	29	Egoitza	– Batzar arrunta – Ageriko bilkura R. M. Azkue (gaur <i>Lauro</i>) Ikastolaren 40. urteurrena
Urria	27	Nafarroa	– Batzar arrunta – Ageriko bilkura <i>Nafarroa Oinez</i> edo beste ospakizunaz
Azaroa	24	Egoitza	– Batzar arrunta – X. Jagon Jardunaldiak
Abendua	22	Baiona	– Batzar arrunta – J. Haritschelhar euskaltzainburu ohiari omenaldia – Ordezkaritzaren egoitza berria

**EUSKALTZAINDIAREN 2008ko
BATZAR-EGUTEGIA**

EUSKALTZAINDIAREN 2008ko BATZAR-EGUTEGIA

OSOKO BATZARRAK ETA AGERIKO BILKURAK			
Hila	Eguna	Tokia	Zer
Urtarrila	24	Bilbo	– Euskararen Erakunde Publikoarekin hitzarmena sinatzea – Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiaren omenaldia
Urtarrila	25	Bilbo	– Batzar arrunta – <i>Recuperación del Euskera en Navarra</i> -ren aurkezpena egileak
Otsaila	29	Bilbo	– Batzar arrunta – Hilberri-txostenak (1) – Bestelako txostenak (2)
Apirila	4	Bilbo	Batzar arrunta
Apirila	25	Donostia	Batzar arrunta
Maiatza	30	Iruñea	Batzar arrunta
Maiatza	31	Etxaleku	Sarrera-hitzaldia (S. Aleman)
Ekaina	27	Bilbo	Batzar arrunta
Uztaila	18	Hendaia	Batzar arrunta
Uztaila	19	Hendaia	Sarrera-hitzaldia (A. Arkotxa)
Iraila	26	Bilbo	Batzar arrunta
Urria	6	Iruñea	Batzar Berezia
Urria	6-10	Iruñea	XVI. Biltzarra
Urria	31	Donostia	Batzar arrunta
Azaroa	28	Bilbo	Batzar arrunta
Abendua	19	Donostia	Batzar arrunta

(1) Jose Manuel Lasarte eta Jesus Atxaren hilberri-txostenak.

(2) Angel Ibisate euskaltzain urgazleak *Ergoien-ez* egindako txostena irakurtzea.